Surrexit

IV. Ebanjelizatze-Egitasmoa
Gasteizko Elizbarrutia · 2026–2030

© Gasteizko Elizbarrutia
Vicente Goikoetxea kalea 7
01008 Vitoria-Gasteiz

www.diocesisvitoria.org

Diseinua eta maketazioa:
Batweb.es

Ilustrazioak:
Claudia Aranegui eta Patxi Ortiz

Inprimatzailea:
Gráficas Dosbi S. L.

Lege gordailua:
LG G 00318-2026
2026ko ekaina

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa
Gasteizko Elizbarrutia · 2026–2030

BIHOTZ SUTSUAK · BEGI IREKIAK · OINAK BIDEAN

**Emauseko kontaketa ebanjelikoan oinarriturik:
zure bizitzan arrastoa utzi eta ezinbestez berri ematera
zaramatzan elkartzea.**

Sigla eta laburdurak

BIBLIA

Ir — Irteera

Lk — Ebanjelioa san Lukasen liburutik

Mk — Ebanjelioa san Markosen liburutik

Erm — Gutuna erromatarrei

2Ko — Bigarren gutuna korintoarrei

1Pe — San Pedroren lehen gutuna

AGIRIAK

EG — *Evangelii gaudium* (Frantzisko)

DD — *Desiderio desideravi* (Frantzisko)

AA — Gotzainen Sinodoaren Ohiko XVI. Batzar Nagusiko *Azken Agiria*

ELIZBARRUTIA

PAB — Gasteizko Elizbarrutiko Pastoraltzaren Animazio Biblikoa

BESTE BATZUK

ik. — *confer* (erkatu, ikusi)

tx. — txatala

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizatze-Egistamoaren aurkezpen eta onarpena

Elizbarrutiko kide maiteok: pozik onartu eta aurkeztu nahi dizuet **'Surrexit' Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa.** Hitz bakarrak laburbiltzen du gure poza eta itxaropena: **Surrexit**, piztu da! Horixe da gure indarra eta poztasuna; gizarteari egiten diogun ekarpena bere piztueratik sortzen da eta horrexek sustatzen du gure gogo hezigaitza. Gizadiak irrikaturiko zorion-nahiaren sustraiak berpizkundean daude eta egiazko proposamena egiten dugu haragitzen dugunean.

Emaus beti dago gure zerumugan. Jerusalemetik ihes egiten dugunean edo poz-pozik itzultzen garenean. Emaus ezinbesteko igarobide da. Berpiztuarekiko bategite hau aukeratu dugu Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmoaren hari eroale bezala irudika gaitzan: begiak irekita, bihotzak sutan eta oinak bidean.

Begiak ireki eta errealitatea ondo aztertu nahi dugu. Emausekoen itsutasun, tristura, gogorik ez eta eszeptizismoari aurre egitea ere nahi dugu. Izan ere, gure eliz elkarteei, eta ez gizarteari bakarrik, eragiten dieten errealitateak dira. Jauna beti ondoan dugulako, bidera ateratzen zaigulako eta ekimena duelako, aitortu egin nahi dugu, sutan baita gure bihotza. Bere hitzak bizitzaren inguruabar bakoitza zentzuz betetzen duelako eta bere bihotzaren antz eta irudiko egindako gizaki ororen aurrean batera jarri nahi dugulako. Kristau sarbidearen gailur bezala aitortu nahi dugu Eukaristian, gure elkarteen bihotzean.

Eta hortik anai eta arreba guztien bila atera, Elizaren ziurtasunean berretsita: "Benetan, **Surrexit**, piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio". Leon XIV.a aita santuaren eskutik, sinodo-seneko Elizari buruzko Sinodoa garatzeko ahaleginean dihardugu, Elizaren izateko eta jarduteko era hori sustatuz. '**Surrexit**' Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmo honek sinodo-ekintza eta ekimenak zehazteko aukera emango digu, datozen lau urteotan erantzukidetasunean haz gaitezen.



Emaus ez da ez katekesi-eskema ezta narrazio-bitartekoa ere. Eliza da, Berpiztuarekiko elkartzea da, egiteko eta bidalketaren bihotza da; eukaristia eta oinazetan den gizadira bidalitako kristau elkartea da. Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmoari forma ematen dio, bai, baina egunero, inguruabar esanguratsu bakoitzean sartu nahi dugu ebanjelioko pasarte honetan. Giro horretatik, topaketa horretatik eta lagunarte horrekin bizi nahi dugu Jesusen jarraitzaile izatea.

Emaus akonpainamendua baita familian eta elkartean, artzainen, laikoen eta sagaratuen eskutik. Emaus Jaunaren eguneko eta fededunaren eta elkartearen euskarri den eguneroko janariaren Eukaristia da. Emaus egiteko da gogorik ezean eta poztasunean. Emaus bikotearen Eliza txikia eta apostoluen eta elkarte osoaren Eliza handia da. Emausetik bizi, Berpiztuarekin, bere egitekoan, **Surrexit** litzateke: begiak irekita, bihotzak sutan, oinak bidean.

Lau urteok hil edo biziko dira Elizbarruti osoa bokazio ikuskeran jartzeko. Norentzat naiz? Jaunaren atzetik jarraitzean heldutasuna jadesten diharduen bataiatu bakoitzak bere buruari egiten dion galdera da.

Gure elkarteetan elkarrekin bide egiten ari diren familiak, senar-emazte erakargarriak, artzain prestuak eta 24 orduz sagaratu boluntario direnak badira, gazteek gertuko bokazio-erreferentziak izango dituzte Jaunari hobeto erantzun ahal izateko. Emaus bokazio-ibilbide bezala eta Eliza eta herri honentzako bedeinkapen bezala bizitzeko aukera izango dute.

Bedeinkapena eskatuko diogu Jaunari gure elkarteak berri ditzagun eta elkarteok ahulenen eta zentzu premia gehien duten pertsonen alde heda daitezen. Bihotzez eta prestasunez, nire bedeinkapena.

+ Juan Carlos Elizalde
Gasteizko Gotzaina

Estíbaliz, San Gregorio Ostienseren eguna,
2026ko maiatzaren 9a.

Sarrera

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa

Gasteizko Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa Espiritu Santuan Elizan ahalbidetzen duen misio-bihurtzearen berezko bizitasunaren adierazpen naturala da. Aurreko Egitasmoaren ebaluazioren emaitza bezala, elizbarrutiko elkarteak helburu eta ekintzak proposatu izan ditu, jarraitu beharreko bidea egokituz. Horretarako, Elizbarrutiaren testuinguru eta garaiaz gainera, kontuan hartu dira azken urteotan eliz irakaspenetatik eratorritako argia ere.

1. Eliz testuingurua

Elizan, Jainkoaren Hitzaren eta Eukaristiaren mahaiak dira fedearen goreneko arau. Halaber, laguntza eta kemena ematen dizkiote Elizari berari, sendotasuna fededunei, eta beren bizitza espiritualaren betiereko iturri dira (DV 21). Ezinbesteko erreferentzia dira Jainkoaren herriaren ibilian. Hau oinarritzat harturik, eta modernitatearekin hartu-emanean, Elizak bere nortasun eta eginkizunaren inguruan gogoeta egin zuen Vatikano II.a Kontzilioan. Bertan sorturiko agirien eragina nabarmena da gaur egun ere eliz berrikuntzarako bidean. Kontzilioaren ostean izan diren Aita Santuek, haien ulertze eta gauzatzea gidatzeaz batera, fededunaren nortasunaren eta munduan duen egitekoaren ezaugarri nagusiak nabarmendu dituzte.

1.1.- Frantzisko Aita Santuaren irakaspenak eta ondarea: Elizaren misio-bihurtzea

Azken urteetan, Frantzisko Aita Santuak Elizaren misio-nortasuna nabarmendu zuen, egiteko ebanjelizatzailea bere funtsezko egitekotzat joz. Bere ustez, "Elizak Jesusekin duen intimitatea, bidean dagoen intimitatea da, eta komunioa berriz, era misiolarian gauzatzen da, funtsean" (EG 23). Gainera, Jainkoaren herriaren ibilia bakarrik entzute- eta

ikaste-jarreratik egin daitekeela zioen, beti egon behar baitu adi Jesukristoren bizitza eta hitzari eta "Jesu Kristorekiko adiskidetasunak dakarren indarrik, argirik eta kontsolamendurik gabe..., eutsiko dien fede elkarte bat gabe, zentzuzko eta bizitzazko etorkizunik gabe" (EG 49) bizi den hainbat senideri entzuteko prest. Bere aitasantutza-aldian, Frantzisko Aita Santuak giza bizitzaren askotariko alderdiak azpimarratu zituen: denona den etxearen zaintza, gizarte senidetasun eta adiskidetasuna, erruki eta zuzentasuna Berri Onaren ardatz bezala, maitasunaren poza familian, santutasunerako deia gaurko munduan, fedea eta gazteen gizartearekiko konpromisoa, Jesusen Bihotzaren jainko eta giza maitasuna... Halaber, sinodo-sena bere ministerioaren ardatz nagusi eta zeharkako bihurtu du, etorkizunean Elizaren bidea sen horretatik eratu behar dugula adieraziz.

1.2.- Leon XIV.a Aita Santua: jarraitasuna eta bide berrien bilaketa fedearen zabalkundean

Aita Santu hautatzeaz batera, Leon XIV.ak bere egin du Frantzisko Aita Santuaren ondarea, aldi berean, bere fededun eta pastoral begiradatik Elizak eta gizarteak bizi duen une honek eskatzen dituen azpimarrak gehituz. Kristo berpiztuaren lehen agurra gogora ekarririk, behin eta berriz egin du hainbeste liskarren eraginez aztoraturik den munduan bake armagabetu eta armagabetzailea ezartzeko deia, batasunera eta Elizan eta gizartean hartu-emana eta elkartasuna sustatzera premiatuz. Jesukristo lehenetsiz, etengabe deitzen du, otoitzaren, sakramentuen eta barneko bizitzaren bultzadaz, gaur egungo munduaren erronkei erantzungo dien berrikuntza espiritualera.

Leon XIV.ak, Ebanjelioaren gizarte alderdia ere aintzat harturik, gizakiaren duintasunaren alde egin du bere alderdi guztietan, gizon-emakumeen artean bidegabekeria eta desberdintasuna sortzen dituen pobretasunaren aurka deiadar egin du, Jaunarenganako maitasuna behartsuenganako maitasunari loturik dela nabarmenduz. Premiazko eskea egin du kreazioa zain dezagun, krisi ekologikoaren eta krisi sozialaren artean dagoen lotura agerian jarriz. Eta, pastoral erronka berrien aurrean, Berri Ona berriz hots egitearen premiaz eta lehentasunaz ohartarazi du, ohiko pastoraltzan norabidez aldatzera eta fedearen zabalkunderako modu berriak esperimentatzera bultzatuz.

2.- Gizarte eta elkarte testuingurua

Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmo oro Elizbarrutiak, historiako une jakin batean, bere buruaz eta egiteko ebanjelizatzaileaz duen ezagueraren erakusgarri da. Elizbarrutiko elkarteak, Hitza entzun eta bere egin ondoren burututako gogoeta eta bereizketaren emaitza bezala, zein norabide hartu agertzen da, Espirituak deitutako eta Jaunak Jainkoaren Erreinua hots egiteko eginkizunera bidalitako lekuko Elizaren nortasuna berretsi eta sendotuko duten helburu, jomuga eta ekintzak jarriz. Honela, ikasle bakoitzarengan eta Elizbarrutian eragin behar duen etengabeko bihurtzea egia bihurtu eta agerian jartzen da.

2.1.- Gizarte ingurunea

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa gizarte eta eliz testuinguru korapilatsuan sortu da. Herritarrek giro asaldatua bizi dute, tirabira politiko eta sozial larriez betetakoa, non, kasu askotan eta askotariko interesen eraginez, gatazkak eragin eta norbanako eta herrien sufrimendua eta batik bat behartsuenengan eragina duten ekonomia-krisiak areagotu dituzten. Energia-krisia, etxebizitzarik eza, oinarrizko ondasunen prezioaren gorakada... mehatxu da herritar askorentzat. Pobretasun eta borrokaz beteriko egoeretatik eratorritako migrazio-mugimenduak gehitu behar zaizkio horri, sarritan gure gizarteetara heltzean egokitzeko zailtasunak aurkitzen dituzten jende-andanak, kristau elkartearentzat erronka bilakatu direnak.

Gainera, teknologia digitalaren non-nahiko eraginpean bizi gara, bitarteko horiek dakarzkiguten egundoko aukeren eta norberekeria, azalkeria eta bakartzean jausteko arrisku larriaren artean. Bizitza-erritmoen bizkortzeak, errealitatearen konplexutasun gero eta handiagoak, aktibismorako bultzadak eta heziketaren aldeko konpromiso eskasak ere egundoko eragina dute fededunen bizitzan. Barneko zatiketa dakarte, bizitzari zentzua emateko premia gutxitu egiten dute eta isiltasuna egiteko, sakontasunez jaisteko eta Jainkoaren benetako esperientzia bizitzeko gaitasuna mehatxatu.

2.2.- Elkarte ingurunea

Gizarte testuinguru honetan, ideologiara murrizten du fededun askok fedearen ulermena eta eliz bizitzan polarizazioak eta tirabirak sortzen dituen bakartzean murgiltzen dira. Eta hori gutxi ez, eta bataiatu ugariren buru eta bihotza neke, gogorik ez eta frustrazioz betetzen ari da, apurka-apurka. Horrek, aldi berean, indargabetze espiritual eta morala dakar, pastoral bultzadaren ahultzea, etengabeko eliz deslotura eta elkartasun gabezia. Fededunek bataio eta sendotzan jasotako Espirituaren dohainak sua pizten du beren bihotzean eta adore emate du Elizaren bidean. Baina, "sugar honek bizitasuna galdu ere egiten duela onartu behar dugu apaltasunez eta ezinbesteko dela suspertzea. Kultur aldaketa azkarrek, gure eginkizuna garatzea egokitu zaigun inguruneek eraginik, behin baino gehiagotan nekea eta ohikeriaren zama gainera etorririk, edo fede eta jardute erlijiosoaganako axolagabetasun gero eta handiagoak gogogabeturik, nahitaezkotzat jotzen dugu su hori sustatzeko eta bizitzeko premia"[1].

3.- Surrexit: fedearen konfesionaltasuna eta misio-bultzada

Gizarte eta eliz testuinguru honetan txertaturik dela kontuan hartuta, Gasteizko Elizbarrutiak ibilbide berriari ekin nahi dio **Surrexit**, Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoarekin. Eta Jesus eta Emauseko ikasleak elkartu zireneko pasartea (Lk 24, 13-35) aukeratu du eremu inspiratzaile eta eroale bezala. Kontakta honek gaur egun fededun askok bizi izandako egoera agertzen du eta, aldi berean, bideari lotuta jarraitzeko (behar izanez gero, egindako ibilbidean atzera eginez), Berpiztuarekiko bategitea sustatzeko eta, horrela, ikasle misiolari bezala irrika apostolikoa berreskuratzeko deia da.

Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmo berri honek Emauseko ikasleak federa daramatzan ibilbidea proposatzen dio jarraibidetzat Gasteizko Elizbarrutiari. Pasarte honetan agertzen diren jarrera eta nahiekin bat datozen bost kapitulutan antolatuta dago: entzun, lagun egin, ospatu, elkartera itzuli eta iragarri.

1. Leon XIV.a, *Bilera Erromako Elizbarrutiko apaizekin*, 2026ko otsailak 19.

† **Tristuraz eta desengainuz** beteriko hasierako egoera Irakaslearen berpizkundeari buruzko berriren bat izatearekin bateragarri da. Baina Berpiztuarekiko buruz buruko bategitea falta da, eta Jainkoaren salbaziozko egitasmoa onartzea, hau da, ez bere Semea goratzea bakarrik, bere maitasun mugagabearen adierazpen den gurutzea nork bere egitea baizik.

† **Berpiztua bi ikasleen bidelagun bezala** agertzeak apaltasunaren, hurkotasunaren, bategitearen, entzutearen, beste batzuekin batera mahaiaren inguruan jartzearen... balio ebanjelizatzailea adierazten du. Gure gizarteko pertsonen banakako eta taldeko bidea eratzen duten esperientziak dira, ontasunaren, errukiaren, enpatiaren, elkartasunaren... oinarrian dauden esperientziak. Baina, gainera, Emauserako bidean, Jesus bidelagun bezala agertzeak giza keinu hauei zentzu berria ematen dien eraldaketa isila eragiten du ikasleengan. Elkartasun sakonagoa bizi dute Jainkoarekin eta anai-arrebekin. Bat-batean, beren bizitzaren zentzua aldatu egin zen. Bizitzako edozein une edo inguruabar Jainkoaren agerpen, bere agerpena sentitzeko eta Berak bizira deituz hasi duen hartu-emanari erantzunez bizitzeko aukera dela gogorarazten digu pasarte honek.

† **Hitza entzutea eta Eukaristia** dira Berpiztuarekin bat egiteko bide. Hitzaz eta sakramentuen ospakizunaz baliatzen da Jauna bere burua agertzera emateko, guri hitz egiteko, gure intimitatean sartzeko, gure adimena irekitzeko eta bere salbaziozko ekintza gauzatzeko... Ogia zatitzeko mahaiaren inguruan eserita, Emauseko ikasleak, beraiek jakin gabe, bihotza sutan zutela jabetzen dira... Ikasleen bizitzan, beti da Hitza entzunez eta Eukaristian parte hartuz bizitu egiten den hausbero biziren bat. Jauna gure lekurik ilunenetara sartzen da, eta, Berari esker, bekatua, etsipena, desengainua... itxaropen bihur daitezke.

† **Berpiztuarekin bat egin ondoren,** bi ikasleek atzera egin zuten bidean, elkartera itzuliz. Fede, itxaropen eta maitasunezko elkarte honetan hots egiten da Hitza, bertan ospatzen da Euka-

ristia eta elkartasuna bizitzen (1 Kor 10, 16-17), eta Jaunaren berpizkundea iragartzen. Hark Elizaren bidez jarduten jarraitzen du. Eliza, bere nortasun zuzen eta bekatariaren anbiguotasunean, haren jardueraren onuradun nagusia da eta, aldi berean, salbaziozko bitarteko gizadi osoarentzat. Vatikano II.a Kontzilioak gogoratu digunez, "Eliza Jainkoarekin estu-estu batzearen eta gizadi osoaren batasunaren sakramentu bezalakoa edo ezaugarri eta tresna da Kristorengan" (LG 1). Horregatik, Eliza, kristau elkartea, garai guztietako ikasleek Emauseko ikasleen esperientzia berritzeko eta eguneratzeko duten ohiko eremua da.

[...] Espirituaren bultzada ere bada, fede horren fruitu, berpiztu, birsortu, altxatu gaitezen, bihotzaren grina berreskuratu eta gure Elizaren misio-sua susper dezagun...

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa eratzen duten jardunbide eta ekintzak Emauseko ikasleek egindako bide honetan txertaturik daude, hortik jasoz beren batasun eta bizitasuna. Lanketan, Gasteizko lekuko Elizak Espiritu sustatzailearen agerpena esperimentatu izan du. Espiritua jasotako erantzun ugarien, prozesu osoan egindako bereizketaren, kideen eta askotariko karismen artean eragindako elkartasunaren, sinodo-senez bizi izandako prozesuaren, sortu duen ilusioaren... bidez agertu izan da.

Horregatik, elizbarrutiko elkarteak bizi izandako unea Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmo berriari izena ematen dion **Surrexit** hitzean laburbiltzen da. Jaunaren berpizkundeaganako fede aitormena izateaz batera, Espirituaren bultzada ere bada, fede horren fruitu, berpiztu, birsortu, altxatu gaitezen, bihotzaren grina berreskuratu eta gure Elizaren misio-sua susper dezagun. Espiritu bera izango dugu lagun Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmo berria gauzatzean eta Gasteizko Elizbarrutiko Jainkoaren herria osatzen duten ikasleen bidean.

5 Iragarri

45. ORRIALDEA

4 Elkartera bihurtu

35. ORRIALDEA

3 Ospatu

29. ORRIALDEA

2 Lagun egin

23. ORRIALDEA

1 Entzun

15. ORRIALDEA

Surrexit

Elizbarrutiko IV. Ebanjelizazio-egitasmoa
Gasteizko Elizbarrutia · 2026–2030

ARABAKO, URDUÑAKO ETA TREBIÑUKO ELIZBARRUTIKO ELIZA

Emauseko ikasleak (Lk 24,13-35)

13 **Egun hartan bertan,** ikasleetako bi Emaus izeneko herrixka
batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. 14 Gertakari guz-
tiotaz mintzo ziren elkarrekin. 15 Eta, hizketan eta eztabaidan ari
zirela, Jesus bera ondoratu zitzaien eta beraiekin joan zen. 16 Baina
ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten ezagutu. 17 Jesusek esan zien:
«Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?». Haiek gelditu egin
ziren, aurpegia ilun, 18 eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela
erantzun zion: «Zeu izango zara egun hauetan Jerusalemen gertatu
dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». 19 «Zer gertatu da, bada?» –esan
zien hark. Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena; profeta
handia zen hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan;
20 baina gure apaizburu eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta
gurutziltzatu. 21 Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina
badira hiru egun hori gertatu dela. 22 Egia da gure arteko emakume
batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira 23 eta
ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten ain-
geru batzuk agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. 24 Gutako batzuk
ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezala aurkitu dute guztia;
baina bera ez dute ikusi». 25 Orduan, Jesusek esan zien: «Bai buru
gutxikoak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! 26 Ez ote
zuen Mesiasek hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?» 27 Eta,
Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari
buruz zioten guztia azaldu zien. 28 Zihoazen herrixkara hurbildu zire-
nean, aurrera jarraitzeko keinua egin zuen Jesusek. 29 Baina haiek
arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta
iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. 30
Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik,
bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. 31 Orduan, begiak ireki
zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzaien
begi aurretik. 32 Haiek elkarri esan zioten: «Ez al geneukan barrua
sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean?»
33 Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen
lagunak bildurik aurkitu zituzten, 34 honela ziotela: «Egia da! Piztu da
Jauna eta Simoni agertu zaio». 35 Bi ikasleek bidean gertatua eta nola
ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten.

CLEOFÁS

1. Entzun

Jesusek esan zien: "Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?" Lk 24,17

«Entzuteko prestasuna da bestearekin hartu-emana izateko nahia agertzera ematen duen lehen zeinua.

Jainkoak berak, bere burua Moisesi sutan zegoen sasitik agertzera ematean, entzutea bere izaeraren bereizgarria dela agertzen du: "Ongi ikusia dut nire herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean; bai, ohartu naiz haien oinazeaz" (Ir 3, 7). Zapalduen garrasia entzutea da askapenaren historiaren hasiera eta Jaunak Moises ere istorio horretan nahasi egiten du morrontzaren pean dauden seme-alabentzat salbaziozko bidea irekitzera bidaliz [...]

Geure eta gizarte bizitza zeharkatzen duten ahots ugarien artean, Idazteunak atsekabe eta bidegabekeriatik sortzen den ahotsa atzemateko gai egiten gaitu, garrasi hori erantzunik gabe gera ez dadin. Harmenerako barneko prestasun horretan sartzeak Jainkoari geure burua hezten uztea adierazten du Berak bezala entzuteko eta hauxe aitortzeko: «behartsuen egoera, garrasia dela, gizadiaren historiak gure bizitza, gure gizarteak, sistema politiko eta ekonomikoak eta, bereziki Eliza, etengabe entzutera eta erantzutera eraman behar duen garrasia»" (*Dilexi te* 9)»[2].

2. Leon XIV.a, *2026ko Garizuma-aldirako mezua*, 2026ko otsailak 13.

Helburu nagusia

Elkarte barruko eta kanpoko anai eta arrebak entzun, Jesusen ereduari jarraituz, Jainkoaren herri bezala hartu-emana izateko, bereiztеko eta banatzeko ezinbesteko baldintzatzat harturik.

1. jardunbidea

Elizbarrutiko elkarte osoa hezi Espirituak goiargitutako entzutean trebea izan dagin, Jainkoaren borondatea betez, bere Hitzari esanekotasuna agertuz, behartsu eta kaltetuei eta bila diharduten edo edozein arrazoirengatik sufritzen ari direnei arreta eskainiz.

EKINTZAK

- Taldeak sortu elizbarrutian edo artzapez-barrutian, horietan entzutearen pastoraltza koordinatzeaz, sustatzeaz edota parte-hartzeaz arduratutako pertsonen etengabeko ikaskuntza eta heziketa sustatzeko.

- Barneko eta baterako entzuteari loturako ekintzetarako lagungarri izan daitezkeen materialak proposatu edo prestatu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. jardunbidea

Barruko entzutea eta baterako entzutea ahalbidetzeko eremuak sortu, Jauna ager dadin, bihotz-berritzearen grazia eman diezagun eta Jainkoaren herriaren eta beste pertsona batzuen entzutera zabal gaitzan.

EKINTZAK

- Barruko entzutea garatzeko baliagarri diren egitarau eta jardueren -gogo-jardunak, irakurketa sinesteduna, e.a.- antolaketa sustatu.
- Entzutea ahalbidetzeko lagungarri izan daitezkeen eremuen egokitzapen eta atontzean lagundu parrokia, elkarte eta artzapezbarrutietan.
- Irakurketa sinesteduna eta Jainkoaren Hitzaren azterketa sustatu, Gasteizko Elizbarrutiko Pastoraltzaren Animazio Biblikoa (PAB) sendotuz eta irakurketa sinestedunerako taldeen sorrera eraginez.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. jardunbidea

Bidera irten eta "bizitzaren zentzua galdu izanaren, errukiaren ahanzturaren, duintasunaren bortxaketarik latzenaren, familiaren krisiaren eta gizartearen egundoko sufrimendua dakarren hainbeste zauriren"[3] zorigaitza jasaten diharduten pertsonei entzun.

EKINTZAK

- Elizbarrutiko ingurugiroetan martxan dauden erakunde eta jarduerak bultzatu: Caritas, Berakah, Sendilagun, BerriOna, dolurako taldeak...
- Norbaitek entzuteko premian dauden gizatalde edo norbanakoei hurbiltzeko bide berriei ekin, gainontzeko kontinenteetatik datozenen ahotsak eta beren bizigiroetan Jainkoaren Erreinua eraikitzeko premia ere aintzakotzat hartuz.
- Migrazioetarako Mahaia sortu, esperientzia eta erronkak batera jartzeko, premiak argitzeko eta irtenbideak aurkitzeko eta guztioi doakigun lana adoretzeko eta koordinatzeko.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. Leon XIV.a, *Homilia Kardinal-kolegioarekin ospatutako Meza Santuan*, 2025eko maiatzak 9.

4. jardunbidea

Jardueren transmisio eta zabalkundea ahalbidetzeaz gainera, parrokia eta elkarteei, norbanako eta era bateko eta besteko heziketa-eremuei arreta eskainiko dien, beren koordinazioa eta hartu-eman eraikitzailea ahalbideratuko duen eta laikotzaren ekarpenari agerikotasuna emango dion komunikazioa bultzatu elizbarrutian.

EKINTZAK

- Komunikaziorako taldeak eratu parrokia edo artzapez-barrutietan, parrokiaren bizitzaren ingurukoak zabaltzeko eta Elizbarrutiarekiko koordinazioa eta kidetasun-sena sustatzeko.

- Elizbarrutiko Kuriaren antolamendua zehaztu, Sail, Ordezkaritza, Idazkaritza, Batzorde eta Zerbitzuen, eta baita pastoral arloen (ebanjelizazioa, karitatezko ekintza, gizarte ekintza, e.a.), arteko koordinazio eraginkorra lehenetsiz.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. jardunbidea

Erantzukidetasun eraginkorra gauzatzeko eta Elizbarrutiko gobernu eta kontsultarako organoetan (Gobernu-batzordea, Gotzain Kontseilua, Apaiz Kontseilua, Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua, Parrokiako Ekonomia- eta Pastoral-batzordea) parte-hartzeko iniziatibak eragiteko ekintzak zehaztu, elizbarrutiko desberdinen artean entzutea ahalbidetzeko.

EKINTZAK

- Laiko ministerioen izendapena sustatu erantzukidetasunerako bide bezala.
- Elizbarrutiko gobernu eta kontsultarako organoen jarduerari protagonismo gehiago eman Elizbarrutiko komunikabideetan.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Threescore
FURLONGS
Emmaus

2. Lagun egin

Jesus bera ondoratu zitzaien eta beraiekin joan zen. Lk 24,15

«Akonpainamendu espiritualak, Espiritu Santuari esaneko bazaio, geure buruaren eta Jaunarekiko hartu-emanaren inguruko gaizki-ulertuak ezagutzera ematen laguntzen du. Ebanjelioak Jesusek izandako hainbat solasaldi argitzaile eta askatzaile aurkezten du. Gogoan izan, esate baterako, samariar emakumearekin, Zakeorekin, emakume bekatariarekin, Nikodemorekin, Emauseko ikasleekin izandakoak. Jesusekin benetako elkartzea duten pertsonek beldur gabe irekitzen diote bihotza eta beren ahultasuna eta gabeziak aurkezten. Honela, batera-jartze hori salbaziozko, libreki jasotako barkamenezko esperientzia bihurtzen da [...]

Lagun egiten duenak ez du Jaunaren lekua hartzen, ez du lana laguntza jasotzen duenaren ordez egiten, bere bidelagun bihurtzen da, bere bihotzean, Jaunak hitz egiteko duen lekurik behinenean, mugitzen dena irakurtzera bultzatzen du. **Akonpainamendua** emankor izango bada, bi aldeok sentitu behar dugu seme-alabatasun eta senidetasun espirituala. Anai-arreba, Aita beraren seme-alaba garela sentitzen dugunean atzematen dugu Jainkoaren seme eta alaba garela.

Horregatik, ezinbesteko da elkarte ibiltariko kide izatea. Jainkoarengana ez gara bakarrik joango. Ebanjelioko ezinduaren pasartean bezala, sarritan beste norbaiten fedea dugu euskarri eta sendabide (ik. Mk 2, 1-5); beste batzuetan, geuk hartzen dugu konpromiso hori anai edo arrebaren izenean.

Seme-alabatasun eta senidetasunaren esperientziarik gabe, akonpainamenduak itxaropen irreal, gaizki-ulertu eta mendekotasun-iturri bihur daiteke, pertsona umeen parean utziz»[4].

4. Frantzisko, *Bereizketari buruzko katekesia*, 2023ko urtarrilak 4.

Helburu nagusia

Eliza ebanjelizatzaile izan, pertsonei giza eta fede prozesu guztietan lagun eginez, beren bizitza bere gain hartuz eta Kristoren haragi oinazetsua herrian ukituz.

1. jardunbidea

Heziketa-prozesu egokiak garatu norbanako eta gizataldeei beren bizitzako askotariko egoeretan akonpainamendua eskaintzeari begira prestatzeko eta gaitzeko.

EKINTZAK

- Elizbarrutiko askotariko arloetan akonpainamendua eskaintzea nahi duten pertsonentzako baliagarri izan daitezkeen berariazko heziketa-ibilbideak sustatu.

- Akonpainamendua ahalbidetzeko lagungarri eta bitartekoak sortu, edo daudenak ezagutzera eman, parrokia eta elkarteetan banatuz.

- Pastoralgintzan ingurune seguruak bermatu, adin txikikoen eta ahuleziazko egoeran dauden pertsonen (ingurune digitaletako arriskuak barne) babeserako oinarrizko heziketa sustatuz pastoral eragile guztientzat, Elizbarrutian indarrean dauden agiriekin, elizbarrutiko Protokoloarekin eta jarduera onen gidarekin bat.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

2. jardunbidea

Elizbarrutiaren eta elkarteen eta gizartearen arteko bategite eta hartu-emana sustatu, bere arazo, kezka eta erronkak ezagutzeko, berarengandik ikasteko, eroapena eta errukia emanez, eta pertsonei beren irrika eta premietan, osotasun handiagoko bizitzarako bidean, lagun eginez.

EKINTZAK

- Ikuspuntu sinestedunetik gizarte errealitatearen azterketa egin (Caritasen eta Gizarte Idazkaritzaren aldian behingo txostenen antzera) eta zabaldu, horretaz jabetzeko eta erasandako pertsonekiko bategite eta hartu-emana ahalbidetzeko.

- Fededun elkartea denona den etxearen zaintzan konprometitu, guztion onarekin eta herrien garapen zuzenarekin duen loturaz jabearaziz.

- Ahulezia bereziko eremuetan egon, sufritzen ari diren pertsonen bizi-baldintzak hobetuz eta guztiontzako senidetasun, zuzentasun, bake eta duintasunaren aldeko borrokan lagunduz, inklusioa eta integrazioa bultzatuz.

- Gizarte-karitate ekintzan konprometitutako elizbarrutiko zerbitzuen arteko harreman eta koordinazioa hobetu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

3. jardunbidea

Eliz elkartean akonpainamendua eta bertako kideen zaintza lehenetsi eta landu zailtasunak gainditzeko eta itxaropena pizteko bide bezala, eta benetako hartu-emanak eta lokarriak eragiteko.

EKINTZAK

- Banakako eta elkarteko akonpainamendu espirituala ahalbidetu pastoralgintzan fedea pertsonalizatzeko bide bezala, horretarako gai diren pertsonak ondo heziz eta gauzatzeko eremu eta aldiak sortuz.

- Penitentzia eta Adiskidetzearen Sakramentuaren ospakizunaren etengabeko eskaintza ziurtatu fededunari bihotz-berritzeko, damutzeko eta onbideratzeko banako eta eliz prozesuan lagun egiteko.

- Elkartearen bizitza sustatzeari eta sendotzeari begira, eta salbazioaren egia eta Berri Onaren poza aditzera emango duten elkarte harremanak sustatzeko, jardunbide eta ekintzak garatu.

- Migratu duten pertsonekin biltzeko, berei akonpainamendua eskaintzeko eta beraiekin hartu-emana izateko eremuak sortu, beren duintasuna babestuz, kultura-aniztasuna baloratuz eta beren integrazioa eta guztion arteko elkarbizitza sustatuz.

- Jainkoaren herrian pertsona ororen aldeko abegi eta akonpainamendua jagon, edozein izanik ere bere gizarte, kultura, erlijio, ezkon eta familia egoera[5].

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

5. Frantzisko, *Amoris laetitia*, 291.

4. jardunbidea

Bizitza bokaziotzat hartu eta bokazio-familia den Eliza izanik adi egon Espirituen deiei, eta eliz bokazio guztien onarpen, loratze eta garapena sustatu eta lagundu.

EKINTZAK

- Bokazioen pastoral egitasmoa prestatu Elizbarrutian, nork bere bokazioa atzemateko bideak jarriz.

- Laikoei lagun egin agerpen publikorako bokazioa atzeman eta bizi eta gizartean konpromiso eraldatzaile eta ebanjelizatzailea buru dezaten.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. Ospatu

Elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten... Lk 24,30-31a

Jainkoaren Hitza entzun duten bihotz sutsuek bultzatuta, Emauseko ikasleek, ilunabarrean, beraiekin geratzeko esan zioten bidaiari misteriotsuari. Eta mahaiaren inguruan eserita, bere begiak ireki egin ziren eta ezagutu egin zuten Hark ogia zatitu zuenean. Jesusek egindako ekintzen segida da ikasleak begiak irekitzera daramatzan elementu erabakigarria: ogia hartu, bedeinkatu, zatitu eta berei eman. Aita familiako juduaren ohiko keinuak dira, baina, Jesukristok Espiritu Santuaren graziaz eginda, ogien ugalketaren zeinua, eta batik bat gurutzeko Sakrifizioaren sakramentu den Eukaristiarena, berritu egiten dute bi mahaikideen aurrean.

Baina, hain zuzen be, Jesus ogia zatitzen duen Hura dela ikusten dutenean, «desagertu egin zitzaien begi aurretik» (Lk 24, 31). Gure fedearen funtsezko errealitatea aditzera ematen digu gertaera honek: Ogia zatitzen duen Kristo zatitutako Ogi bihurtu da orain, ikasleei banatutako eta, beraz, beraiek hartutako Ogi. Ikusezin bihurtu zen, hain zuzen be ikasleen bihotzean sartu zelako hauek are eta gehiago pizteko, bideari berandu baino lehenago lotu eta Jesus Piztuarekin bizi izandako esperientzia bakar hura guztiei hots egitera bultzatzeko. Horrela, Kristo berpiztua, ogia zatitzen duen Hura da eta, aldi berean, guretzat zatitutako Ogia. Eta, horregatik, ikasle misiolari bakoitzak, Jesus bezala eta Jesusengan, Espiritu Santuaren eraginez, ogia zatitu behar du eta zatitutako ogi izan behar du munduarentzat»[6].

6. Frantzisko, *Misioen Munduko 97. Egunerako mezua*, 2023ko urriak 22.

Helburu nagusia

Eukaristia-ospakizunean parte-hartzea eta Penitentzia eta Adiskidetzearen Sakramentua ospatzea[7], Kristorekin bat egitearen esperientzia eta bere Pazkoaren ahala jadesteko aukera bezala berriz ediren bakarka eta elkartean.

1. jardunbidea

"Funtsezko eta nahitaezko"[8] **liturgia-heziketa sustatu elkarteetan,** fedea bizitzari lottuta ospatu ahal izateko, ospatzen den eta hizkuntza sinbolikoan eta eukaristia-ospakizunaren edertasunean agertzen den misterioa nork bere egiteko eta misterio horretan sartzeko.

EKINTZAK

- Bitartekoen sorreran eta daudenen zabalkundean lagundu, parrokia edo elkarteetako liturgiarako taldeek edo berariazko heziketa honen inguruko jakin-mina duen edozeinek erabil ditzan.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

7. Bi sakramentuok nabarmendu ditugu Eukaristia delako Elizaren ospakizun nagusia eta kristau bizitzaren bihotza; eta Penitentzia eta Adiskidetzearen Sakramentuak bekatuaren zauriak sendatzen eta Jainkoarekin eta elkartearekin adiskidetzen laguntzen digulako. Sakramentu bi hauek fededunaren fede bizitzako oinarrizko zutabe dira. Bi sakramentu hauek aipatzeak ez du gainerakoen garrantzia ezerezten.
8. Frantzisko, *Desiderio Desideravi gutun apostolikoa* (aurrerantzean, DD), 31.

2. jardunbidea

Igandea, "Jainkoak bere herriari egindako oparia" kristau elkartearen ospakizun nagusi eta Eukaristiaren bitartez bere burua hezteko aukera bezala berreskuratzeko urratsak eman[9], pazko- eta elkarte-sen bera duten larunbat arratsaldeko ospakizunak ere aintzat harturik.

EKINTZAK

- Liturgiarako taldeak sortu parrokietan edo artzapez-barrutietan, taldekideen heziketarako bideak jarriz, igande eta jaiegunetako ospakizunak prestatzeaz, fededunen liturgia heziketaz eta fededunak liturgia ekintzan parte hartzera deitzeaz ardura daitezen.

- Igande eta jaiegunetan, Jaunaren Eguneko ospakizunak jagon eta ahalbidetu Eukaristia ospatzerik ez duten elkarteetan, Jainkoaren Hitza entzuten, Eukaristiako Ogia hartzen, eta igandearen pazko-senean parte hartzen jarrai dezaten, buru direnen eginkizuna baloratuz eta beren heziketa sustatuz. Horretarako, honelako ospakizunen elizbarrutiko direktorioa prestatu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

9. DD 65.

3. jardunbidea

Sakramentuen ospakizunak kristau nortasunaren eraketarako eta fede hazkunderako duten ahalmenaz berriz jabetu[10].

EKINTZAK

- Bataioaren, sendotzaren eta, bereziki, eukaristiaren ospakizuna kristau sarbideko eta helduen katekumenotzako prozesuetan sartu, funtsezko zati bezala.

- Eukaristiak fedea agertu eta susta dezala, ospakizunaren batasuna eta bokazio, karisma eta ministerioen aniztasuna agertzera emanez.

- Apaiza edo gainerako pastoral eragileak beilatokietan eta hileta-ospakizunetan egotea aprobetxatu familiari eta elkarteari doluan lagundu eta beren fedea sendotzeko eta lehen iragarpena edo kerigma hots egiteko aukera bezala hartu.

- Katedralak erreferentzia eta Elizbarrutiaren batasunaren ikur bezala duen liturgia eta pastoral eginkizuna sustatu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

10. 2021-2024 Sinodoa, *Sinodo-seneko Elizaren alde: elkartasuna, parte-hartzea, misioa. Azken Agiria* (2024ko urria; aurrerantzean, AA), 142.

4. jardunbidea

Eukaristiaren prestaketa eta ospakizunaz arduratu, aparteko arreta jarriz homilian eta guztien partaidetza erantzukide eta eraginkorrean.

EKINTZAK

- Ospakizunaren askotariko alderdiak (lekua, denbora, keinuak, hitzak, gauzak, jantziak, abestiak, musika...) baloratu eta zaindu[11], errubrikak betetzearen eta sormenaren arteko oreka bilatuz[12], ulermena erraztuz eta Jainkoaren herri osoaren parte-hartze eta esku-hartzea ahalbidetuz.

- Homilia kontu handiz prestatu, "artzain batek bere herriarekin duen gertutasuna eta topo egiteko gaitasuna neurtzeko frogagarria" da-eta, "Espirituaren esperientzia bizi eta zoriontsua, Hitzarekin topo-egite bizkorgarria eta berrikuntza- eta hazkunde-iturri etengabea" izan dadin[13].

- Aldian-aldian liturgia ospakizun eta homiliak ebaluatu, Elizbarrutiko pastoral arloen aniztasuna aintzat hartuta.

- Eliz mutil eta akolitoen taldeak sortu, eta beren fede hazkundean lagun egin.

- Sinodo-seneko Elizaren adierazpen diren eta migratzaileen protagonismoa eragingo duten estiloak uztartu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

11. DD 23.
12. DD 48, 54.
13. Frantzisko, *Evangelii gaudium Aholku-hitz apostolikoa* (aurrerantzean, EG), 135.

Cáritas
Diocesana
Berakah

4. Elkartera bihurtu

Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten. Lk 24,33a

Emauseko ikasleen pasartea (ik. Lk 24, 13-35) «behin eta berriz harritzen eta hunkitzen gaituen pasartea da. Jesus piztuaren ekintzak ikasle biengan dituen ondorioak agertzen dizkigu kontaketak: etsipenetik itxaropenera bihurtu; tristuratik poztasunera bihurtu, eta, aldi berean, elkarte bizitzara bihurtu»[14].

«Jerusalemen, Jesusen piztueraren barria entzun zuten eta, aldi berean, beren esperientzia, Berpiztuarenganako maitasunez suturik, bihotza gorde ezineko egundoko poztasunera ireki zien esperientzia kontatu. San Pedrok dioenez, Jesukristo hilen artetik pizteak itxaropen bizirako birsortu zituen (ik. 1 Pe 1, 13). Hain zuzen ere, fede, maitasun eta elkartasunaren berotasuna birsortu ziren berengan. Berri Ona hots egiteko premia. Maisua piztu egin da eta bizitza oro birsortu da Berarekin; gertaera honen lekukotasuna ematea nahitaezko premia bihurtu zen haientzat»[15].

Jerusalemera itzultzea, beren bizitza dohain, eta Jainkoaren atseginerako sakrifizio espiritual bihurtzeko konpromisoarekin (ik. Erm 12, 1) beren ohiko girora bueltatzea da ikasleentzat. Kristo berpiztua "ogia zatitzean" ezagutu ondoren, jasotakoa, Jainkoarekin bat egitearen poza, anai-arrebei jakitera ematera berehala joateko premia sentitu dute[16].

14. Benedikto XVI.a, *Homilia San Julian-Mestreko parkean ospatutako Mezan* (Pastoral bisita Akilea eta Veneziara), 2011ko maiatzak 8.
15. Benedikto XVI.a, *Audientzia Orokorra*, 2012ko apirilak 11.
16. Juan Paulo II.a, *Dies Domini*, 45.

Helburu nagusia

Kalitate ebanjelikoa, elkartasun eta hartu-emanen ontzea, kideen erantzukidetasun eta karismen aniztasuna ahalbidetuko duten elkarte abegitsuen sorrera sustatu, horietan fedea eta munduan Jainkoaren agerpen eraldatzaile izateko eginkizuna osotasunez bizi ahal izateko.

1. jardunbidea

Elizbarrutiko heziketa-egitasmoak sendotu eta finkatu, heziketarako askotariko eremuak koordinatuz, elkarteko ministerio eta zerbitzuetako arduradunen prestaketa egokia bermatzeko.

EKINTZAK

- Etengabeko bihurtzea, Elizaren Doktrina Sozialaren ezagutza eta fede eta bizitzaren arteko koherentzia ahalbidetuko duten ikastaro, hitzaldi eta ikasketa arautuak sustatu.

- Elizbarrutiko heziketa-eskaintzak koordinatu.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. jardunbidea

Askatasunean eta elkartasunean bat egindako Jainkoaren herri izatearen "kutsu espirituala" esperimentatu eta bizi, sinodo-sena elizbarruti parte-hartzaile eta misiolariagoa eratzeko berrize espiritual eta egitura-eraberritzerako bidetzat hartuz.

EKINTZAK

- Sinodorako elizbarrutiko taldea osatu Sinodo-seneko Elizaren inguruko Sinodoko Azken Agiriaren irakurketa eta gauzatzea sustatzeaz gainera, "solasaldia Espirituarengan" delakoa bereizketarako metodologiatzat hartzen lagun dezan, bere jarraibide bideragarrien ezarpenean eta egindako bidearen aldizkako ebaluazioan.

- Apaiz, diakono, erlijioso eta laikoez, bertako zein migratzaile, osoturiko pastoral taldeak edo gogoetarako taldeak sortu arlo batzuen eta besteen pastoral berritzea eragiteko.

- Elizbarrutiko askotariko elkarte erlijiosoak eta mugimenduak aitortu, baloratu eta sustatu, beraiek elizbarrutiko pastoraltzan txertatzea bultzatuz eta horietako batzuk kristau sarbidean eta helduen heziketan egiten duten ekarpena indartuz eta agertzera emanez.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. jardunbidea

Elizbarrutiko parrokien gaurkotasun eta etorkizunaren eta beren pastoral antolamenduaren inguruko gogoeta egin, fedea helarazteko eta ospatzeko, erakarpen eta harrerarako eta egiteko ebanjelizatzailerako gaitasuna duen pertsonen elkarte bizi bezala hazten lagunduz.

EKINTZAK

- Parrokia, pastoral elkarte eta artzapez-barrutien antolamendua sinodo-senetik egokitu Elizbarrutiaren gizarte eta pastoral errealitatea, laikoen -bertako nahiz etorkin- txertaketa eraginez, aberats dezaten eta bizitasuna eman diezaioten.

- Pastoral Birmoldaketa eta Berriztatzerako Elizbarrutiko Batzordearen egitekoa finkatu eta bultzatu, bere eginkizuna zehaztuz: parrokia edo pastoral elkarteak abegitsu, erantzukide, ebanjelizatzaile eta Jainkoaren Erreinuaren eraikuntzan konprometitu izatera daramatzaten proposamenak aurkeztu, koordinatu eta babestu.

- Vitoria-Gasteizko auzo berrietan Elizaren presentzia ezagutzera eman.

- Kristau sarbiderako prozesuak ebaluatu parrokian.

- Pastoral eta Ekonomia Batzordeen eginkizun eta jarduera zehaztu, elizbarrutiko pastoraltzan txertatzea eta Elizbarrutiko hiri eta landa eremura egokitzea ziurtatuko duten estatutu egokiak sortuz eta ezarriz.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

4. jardunbidea

Landa-eremuetako gizarte errealitate berriarekin bat datorren landa-eremuko pastoral egitasmoa prestatu.

EKINTZAK

- Landa-eremuko antolaketa eta pastoral egitura berritu, eta artzapez-barrutien koordinazio handiagoa bultzatu, bizitasun eta eskuhartze handiagoko elkarteen sorrera bultzatzeko.

- Landa-eremuko tenpluen funtzionaltasun eta mantenua ebaluatu, beren hondatzea ekidin eta biziberritzerako aukerak bilatuz.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. jardunbidea

Emakumeek askotariko eremuetan duten erantzukidetasuna agerian jarri, berei Elizbarrutiaren antolaketan erantzukizunak hartzeko aukera emanez.

EKINTZAK

- Hizkuntza inklusiboagoaz baliatu elizbarrutiko ospakizunetan eta agirietan.
- Elizbarrutiko bizitzan emakumeen erantzukidetasuna agerian jarri eta askotariko arloetan beren parte-hartzea susta dezaten elizbarrutiko taldeei babesa eman.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

6. jardunbidea

Haur eta gazteei zuzendutako sinodo-seneko pastoraltza garatu, Espirituak, erantzukidetasun-dinamismoaren bidez Elizari ematen dizkion karismak baloratuz, lehen iragarpena eta kristau sarbideko sakramentuak lehenetsiz, fedetik datorren poza helaraziz, prozesuak zainduz eta pastoral proposamenetan gazteen protagonismoa eraginez.

EKINTZAK

- Gazte eta haurrei zuzendutako pastoraltzaren inguruko gogoeta eta koordinaziorako mahaia sortu, Elizbarrutiko gainerako eremu ebanjelizatzaileei loturik, ekimenak koordinatzen, zailtasunei aurre egiten, jardunbideak alderatzen eta gazteen errealitateari egokitutako ebanjelizazio-proposamenak egiten lagun dezan.

- Fede heziketarako edo kristau sarbiderako ibilbideak eratu, batik bat gazte eta gaztetxoei zuzendurik, Jesukristorekin bat egitearen esperientzia bizitzeko aukera izan dezaten eta esperientzia hori "otoitzarekin, gurtzarekin, eukaristia-jaunartzearekin, maizko aitortzarekin, maitasun eskuzabalarekin"[17] lantzen jarrai dezaten.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

17. Leon XIV.a, *Homilia gazteen Jubileuan*, Tor Vergata, 2025eko abuztuak 3.

7. jardunbidea

Gizon-emakume migratzaileak parrokietan eta elizbarrutiaren bizitzan txertatzea eta parrokiako pastoraltzan askotariko arloetan -elkartea, liturgia, katekesia zerbitzua eta lekukotasuna-, beren esku-hartze eraginkorra sustatu, beren ekarpena aitortzeaz eta baloratzeaz batera.

EKINTZAK

- Elizbarrutian ospakizun eta eremuak sortu, migratzaileek, horietan, beren jatorrizko elkarteetan bizi izan dituzten fede adierazpenen antzekoak aurki ditzaten.

8. jardunbidea

Elizen eta kristau elkarteen arteko harreman ekumenikoak areagotu eta zaindu hartu-eman eta dohain-truketik[18], eta bat egitearen eta entzutearen kultura nork bere egin gainerako tradizio erlijiosoekiko hartu-emanean[19].

EKINTZAK

- Vitoria-Gasteizko Udaleko Bizikidetasun-behatokian eta Aniztasun Erlijiosorako Mahaian parte-hartu Migrazioetarako Elizbarrutiko Ordezkaritzaren bidez, bategite, harreman eta lankidetzarako eremuak sustatuz eta bizikidetasuna, gizarte bakea eta guztion ongizatea eragin dezaketen duten baterako ekimenen gauzatzean lagunduz.

18. DF 40, 122, 137-138.
19. DF 41, 123.

9. jardunbidea

Desgaitasunen bat (fisikoa, adimen-desgaitasuna, zentzumen-desgaitasuna) duten pertsonen premiak kontuan hartu elkarteetan, egile eta eragile bezala Elizan txertatzea sutatuz.

EKINTZAK

- Parrokia eliza eta lokaletarako irisgarritasuna eta ospakizun eta pastoral jardueretan ikuste- eta entzute-komunikazio egokia bermatuko duten ekintzan planifikatu, Jainko herri osoak hobeto parte har dezan horietan guztietan.

- Leku egokiak atondu gurpil-aulkietan dabiltzanentzat eta beren laguntzaileentzat, tenpluetako aulkietan integratuz eta ospakizunetan ikuspen egokia ahalbidetuz.

- Desgaitasunen bat duten pertsonei egokitutako katekesia ahalbidetu, heziketa eta lagungarri egokiez baliatuz.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

SEMINARIVM DIŒCESANVM

5. Iragarri

Honela zioten: “Egia da! Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio”. Lk 24,34

«Jesus "ogia zatitzean" ezagutu ondoren, ikasleak, luzamendutan ibili gabe, "berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren" (Lk 24, 33). Jesusekin bat egiten dutenen poza besteei agertzeko lasterka joate horrek hauxe agertzen digu: "Ebanjelioaren poza bihotzaren eta bizi osoaren betegarri da Jesusekin topo egiten dutenentzat. Haren salbamena onartzen dutenak askatuak dira be-katutik, tristuratik, barne-hutsetik eta isolamendutik. Jesu Kristorekin beti sortzen eta birsortzen da poza" (EG 1). Jesus berpiztua ezin dugu benetan aurkitu guztiei jakinarazteko nahiaren bultzada sentitzen ez badugu. Beraz, misioaren bitarteko behinen eta nagusia, Kristo berpiztua Idazteunetan eta Eukaristian atzeman dutenak dira, haren sua bihotzean eta haren argia begiradan daramatenak. Beraiek eman dezakete inoiz, ezta egoerarik zailenetan eta unerik ilunenetan ere, hiltzen ez den biziaren lekukotasuna [...]

San Paulo apostoluak dioenez, "Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu" (2 Ko 5, 14). Maitasun bikoitza da, Kristok guri digun, erakarri, goiargitu eta Berarenganako gure maitasuna eragiten duena. Eta maitasun honen eraginez, abian den Eliza beti da gazte, eta kide guztiak misioan ditu Kristoren Berri Ona hots egiteko, honako hau sinetsirik: "Kristo denengatik hil da, bizi direnak ez daitezen berentzat bizi, beraiengatik hil eta piztu den harentzat baizik" (15. tx.) [...]

Bi ikasle haiek "bidean gertatua eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten" (Lk 24, 35) bezala, gure iragarpenak ere Kristo Jaunaren, bere bizitza, nekaldi, heriotza eta berpizkundearen, gure bizitzetan gauzatu dituen maitasunezko gauza miragarrien kontaketa alai izan behar du»[20].

20. Frantzisko, *Misioen Munduko 97. Egunerako Mezua*, 2023ko urriak 22.

Helburu nagusia

Ikasle misiolari izanik, honelako Elizbarrutiaren alde lan egin: "Debaldeko errukiaren tokia izan behar du Elizak, mundu guztia onartua, maitatua eta barkatua izango den tokia, Ebanjelioaren bizi onaren arabera bizitzera adoretua izango den tokia"[21], bertan, itxaropena, hau da, konfiantza, poztasun, esker on eta iragarpen bihurtzen den fedea, ikusgai eginez.

1. jardunbidea

Fedearen zabalkunderako, kristau hazkunderako, kristau sarbiderako eta misio-konpromisorako prozesuak egituratu eta ebaluatu, Berri Onaren iragarpena sendotzeko eta Jesukristorekiko buruz buruko eta elkarteko bategitea ahalbidetzeko baliagarri izan daitezen.

EKINTZAK

- Kristau Sarbiderako eta fedearen sustapenerako Elizbarrutiko Direktorioa egin eta aldian-aldian eguneratu.
- Elizbarrutiko maila desberdinetan bihotz-berritzea gauzatu lehen iragarpenaren ikuspuntutik.
- Ebanjelizazio, fedearen zabalkunde eta pastoralgintzarako zerbitzuen (elizbarrutiko, artzapez-barrutietako, parrokietako, ikastetxeetako..., zerbitzuak) koordinazio eraginkorrerako ezinbesteko egiturak sortu, Elizbarrutian Berri Onaren iragarpenaren sustatze eta kudeaketaz ardura daitezen.
- Fede eta kristau sarbideko prozesuen aldizkako ebaluaziorako elizbarrutiko sistema ezarri eragile errazekin, artzapez-barrutietan urtero ebaluazioa egin ahal izateko.

21. EG 114.

2. jardunbidea

Bataiatu guztietan "ebanjelizatzera bultzatzen duen Espirituaren indar santutzailea" ari dela[22] ikusarazi "bizitzaren zentzuna itzultzen dion Jainkoaren maitasuna"[23] helaraziz eta beren lekukotasun jasankorra eguneroko bizitzako leku eta eremuetan hedatzera deituz, beren denbora eta erritmoak errespetatuz.

EKINTZAK

- Laikotzarako Elizbarrutiko Zerbitzua indartu, Teologia-eskolaren edo beste zenbait bitartekoren bidez, heziketa ziurtatuz, hauek sustatzeko eta finkatzeko: ikasle misiolariak, kristau konpromisoa bizitza publikoan, giza duintasunaren eta guztien ongizatearen defentsa gizarte eremuan.

- Kristau parrokia eta elkarteetako ordezkariek norbanakoen eta auzoen bizi-baldintzak hobetzen, gizarte salaketa egiten eta zuzentasun eta bakearen sustapena eragiten diharduten elkarte edo taldeetan laguntzeko konpromisoa har dezatela.

- Fedea kultura herrikoian txertatzearen adierazpen diren herri erlijiositaterako erak (kofradiak, zaindarien jaiak, jai erlijiosoak...) baloratu eta lagundu, Jainkoarekiko, Jesukristorekiko, Mariarekiko, santuekiko... hartu-emanerako bidetzat hartuz...

- Misio unibertsalaren kontzientzia esnatu eta sustatu kristau elkartean, bataiatu guztien misio-sena bizituz, misio lurraldetan laikoen boluntario-lana bultzatuz, misiolariei eta beren elkarteei laguntasun espirituala eta materiala eskainiz.

22. EG 119.
23. EG 8.

3. jardunbidea

Komunikaziorako bitarteko digitalen eta teknologia berrien erabilera sustatu ebanjelizaziorako elizbarrutiko eremuen arteko koordinazio hoberako, horietan parte-hartze handiagoa ziurtatzeko eta irismen handiagoa izateko.

EKINTZAK

- Komunikaziorako egitasmoa zehaztu lehen iragarpenaren ikuspuntutik eta Elizbarrutiko Ebanjelizazio-egitasmoa eta jarraibideak kontuan harturik.

- Elizbarrutian nahiz parrokietan, diru-laguntza eta giza bitartekoak eskaini web eta gainerako plataformen garapenerako.

- Euskarri digital eta gizarte sareen agerpen arduratsu eta komunitarioa sustatu, polarizatzen duten edo egiaztatu gabe dauden mezuen zabalkundea saihestuz eta heziketa egokia eskainiz, fedea, egiaz, errespetuz, neurritasunez eta elkartzea eta konfiantza dakarren estiloaz komunikatu ahal izateko.

- Adimen artifiziala komunikazioan eta pastoralgintzan era arduratsuan erabiltzeko oinarrizko irizpideak aurkeztu, edukien bereizketa eta egiaztatzea eta egiaren, pertsona eta elkarteen duintasunaren babesa sustatuz, bereziki mezu edo irudi manipulatuen sorkuntza eta zabalkundeari aurre egiteko.

ZEIN EKARPEN EGIN DEZAKEGU?

.....

.....

.....

.....

Surrexit



1. **Cuadrilla de Añana** / Añanako Kuadrilla
2. **Cuadrilla de Ayala** / Aiarako Kuadrilla
3. **Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa** / Kampezuko - Arabako Mendialdeko Kuadrilla
4. **Cuadrilla de Gorbeialdea /** Gorbeialdeko Kuadrilla
5. **Cuadrilla de Laguardia - Rioja Alavesa** / Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla
6. **Cuadrilla de la Llanada Alavesa** / Arabako Lautadako Kuadrilla
7. **Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz** / Vitoria-Gasteizko Kuadrilla
8. **Condado de Treviño /** Trebiñuko Konderria
9. **Orduña** / Urduña


6
7
3
8
5